Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokiaren ALDIZKARIA

BOLETÍN del Observatorio Vasco de Economía Social

Nº21 Zbk 2010ko urriak 29 de octubre de 2010

Iragan urriak 18an SER irrati kateko Hora 25 irratsaioan Jose Mª Aldekoari, Mondragon Korporazioko lehendakariari, eginiko elkarrizketa..

Informazio +



Gizarte Ekonomiaren legea eta kontsumo ekologikoa, UNCCUEren urteko batzarraren ardatzak

Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Espainiako Kooperatiben Batasunak (UNCCUE) 68. Batzar Nagusia ospatu zuen joan den urrian Madrilen. Urteko hitzordu horrekin batera, Gizarte Ekonomia eta produktu ekologikoen kontsumoa gaiak jorratu zituzten jardunaldi teknikoetan. Informazio +

Banku etikoari laguntzeko neurri konkretuak proposatu dizkio Fiarek Eusko Legebiltzarrari

Gizarte Politikak, Lana eta Berdintasun batzordearen aurrean agertu ziren Fiare Fundazioko presidenteorde Carlos Askunze eta Peru Sasia zuzendaria banku etikoari bultzada instituzionala emateko. Fundazio berak bilera hori egitea eskatu zuen euskal Parlamentuan, martxoan, banka etikoari laguntzeko ez-legezko proposamen bat onartu ondoren. Informazio +



Kooperatibek hezkuntzaren alde egindako lana nabarmendu du Gabilondo ministroak

Ángel Gabilondo Hezkuntza ministroak eta Murtziako Erkidegoko presidente Ramón Luis Valcárcelek hezkuntza kooperatiben lana goraipatu zuten, “hezkuntza bokazioarekin duten konpromisoarengatik eta heziketari ematen dioten ikuspegi demokratiko, solidario eta gizatiarrarengatik”. Hezkuntza Kooperatiben Espainiako Batasunaren Biltzarraren XIV. edizioa inauguratu zuten bi agintariek. Informazio +



Gizarte ekonomiaren aldeko neurri zehatzak eskatu dizkiote zenbat adituk Europako Batzordeari

Europako akademiko aditu talde batek Gutun Ireki bat aurkeztu zuen Europako Batzordearen aurrean gizarte ekonomia arloko enpresen aldeko neurri zehatzak eskatzeko. ‘From word to action’ (Hitzetik ekintzara) izeneko idatzian, Europako erakundeei dei egiten diete azken urteotan sektorearen alde onartu diren adierazpenak eta idatziak “ekimen politiko zehatzak” bihurtzeko lan egin dezaten. Informazio +



Sektoreak “itxaropen handiko momentua” bizi duela erakutsi dute Gizarte Ekonomiako Ikertzaileen XIII. Jardunaldiek

160 pertsona eta 80 komunikazio bildu zituen ekitaldiak erakutsi zuen momentu bikainean dagoela gizarte ekonomiaren inguruko ikerketa Espainian. Inaugurazio saioan, José Luis Monzón CIRIECeko presidenteak iragarri zuen sektorea esperantzaz

GEEBk eduki berriak barneratu ditu webgunean

Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokiak eduki berriekin elikatzen jarraitzen du bere webgunea. Oraingoan, gizarte ekonomiako enpresentzako laguntza berrien informazioa barneratu du eta Politika Publikoen epigrafean kontsulta daiteke, Arlo Juridiko-Politikoaren barruan. Eskuragarri dago, baita ere, Estatuko Aldizkari Ofizialean irailean argitaratutako Gizarte Ekonomiako lege-proiektua, Ekimen Politikoak atalean, betiere Arlo Juridiko-Politikoan. Informazio +

Ipar Kutxak eta Lorrak, lehen sektoreko 4.000 ekoizle biltzen duen kooperatibak, lankidetza hitzarmena berritu dute

Ipar Kutxak eta Lorra kooperatibak 2007tik indarrean duten elkarlanerako akordioa berritu dute. Hitzarmenaren arabera, Lorrako kideek Ipar Kutxako finantza zerbitzu integrala jaso dezakete, hala nola finantzabide-lerro zabala, inbertsio moduak eta leasing zerbitzuak (banka elektronikoa, kreditu txartelak eta gizarte-aurreikuspeneko planak) abantaila gehiagorekin. Nekazariak eta ekoizle artisau eta ekologikoak ordezkatzen dituzten 30 elkartek eta zazpi kooperatibak osatzen dute Lorra. Informazio +



beteriko unea bizitzen ari dela. **Informazio +**

LKS-k sortu berri duen uraren ingeniaritzaren departamentua sendotu egin da Gipuzkoan, Araban eta Nafarroan dituen proiektuekin

LKS kooperatibak indartu egin du uraren sektorean duen presentzia Estatuko eta nazioarteko hainbat proiektutan parte hartzen ari baita. Azken lanen artean aipagarriak dira Yesako (Nafarroa) edateko ura tratatzeko estazioaren zabalkuntzan emandako laguntza teknikoa, Oñatiko Jaturabeko presaren klasifikazioa, edo Itoitzeko (Nafarroa) presaren oinean eraikitzeko zentral hidroelektriko baten proiektua.
Informazio +



CIRIECen Gizarte Ekonomiako Ikerketarako Hirugarren Nazioarteko Biltzarrerako komunikazioen aurkezpena

Datorren azaroaren 10ean amaituko da CIRIECen Gizarte Ekonomiako Ikerketarako Hirugarren Nazioarteko Biltzarrerako komunikazio proposamenak aurkezteko epea. Topaketa 2010eko apirilaren 6 eta 8 bitartean egingo da Valladoliden.
Informazio +



Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresek erakunde publikoen laguntza handiagoa eskatu dute

Gizarteratzeko eta Laneratzeko Enpresen Europako Foroaren lehen edizioa joan den urriaren 25ean ospatu zen Salamancan. Arlo horretako enpresek gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonak laneratzeko duten garrantzia jakinarazi nahi izan diete sektore publiko zein pribatuari. Gainera, antolatzaileek foroan ohartarazi zutenez, krisialdiaren eraginez kolektibo hori etengabe hazten ari da.
Informazio +

Ez baduzu buletina gehiago jaso nahi, erantzun mesedez helbide honetara mezuaren gaiaren eremuan BAJA hitza ipiniz